ONTZIGINTZA. Bruselak behin-behineko laguntza programa proposatu zuen atzo. Koreako ontziolen bidegabeko lehiaren kontra aritu eta Europakoen egoera hobetu nahi du erabakiak.

Europako ontziolei lagunduko diela erabaki du Bruselak

Zama ontziak egiten dituzten ontziolek eta petrolio zein gai kimikoak garraiatzeko tanga ontzien eraikuntzan aritzen direnek jasoko dituzte diru laguntza gehienak

Erredakzioa | DONOSTIA

Europako Batzordeak behin-behineko laguntza programa bat proposatu zuen atzo ontzigintzaren arazoari aurre egiteko. Izan ere, behin eta berriro salatu izan du Bruselak Koreako ontziolen lehia desleiala.

Proposamena Europako Batzordearen eta Korearen arteko hainbat bileren ondoren etorri da. Uztailaren 18an Bruselak negoziaketak bertan behera uztea erabaki zuen, Europako Batasuneko 15 herrialdeak ez baitziren ados jartzen .

Guztiek bat zetozen Korea Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) aurrean salatzeko. Baina behin-behineko laguntza programaz hitz egiteko garaian, iritzi desberdinak sortzen ziren.

Danimarka, Erresuma Batua, Finlandia, Suedia edota Holanda bezalako herrialdeek ez ziren programa horren aldekoak, eta ontzigintza lehia eta etorkizun gutxiko sektorea dela adierazi zuten. Alemania, Italia, Espainia eta Portugal, aldiz, laguntza programaren alde azaldu ziren. Europako Batzordeko Merkataritza komisario Pascal Lamyk, «bi erabakiak loturik daudela eta ezin dela bata ala bestea aukeratu» azpimarratu zuen.

Atzo, ordea, herrialde guztiak ados jarri ziren eta Europako Batzordeak laguntza programa bat proposatzea erabaki zuen.

Europako Ministro Kontseiluak onartu behar du orain laguntza programa hau. Erabakia baiezkoa bada, orduan hasiko da MMEri egingo zaion eskakizuna.

Laguntza zehatzak kaltetuenentzat

Laguntza programa, beraz, behin-behinekoa da. Hau da, MMEren prozesua hasten den arte ez da indarrean jarriko, eta prozesua bukatzen denean programak ere bukatu beharko du. Pascal Lamyk laguntza programa hau beharrezkoa zela esan zuen, «Munduko Merkataritzako Erakundearen prozesu luzeak dirauen bitartean beharbada Europako ontziolak desager daitezke eta».



XOUSE SIMAL

Sestaoko La Naval izango da, agian, Bruselako laguntzak jasoko dituen ontzioletariko bat.

ONDORIOAK

Bruselaren erabakiak La Navaleko ontziolei lagunduko die

Europako Batzordeak atzo hartutako erabakia baliteke Sestaoko La Naval ontziolen mesederako izatea. Izan ere, laguntza horiekin Europako eta Koreako ontziolek beren egoera parekatuko baitute, eta orain arte izan den bidegabeko lehiari ere kontra egingo zaio. Era berean, litekeena da laguntza zehatz horien onuradun La Naval izatea, Bruselak aipatutako ontzi motak egiten baititu. Bestalde, gogoratu behar da Europako ontziolek 2000. urteko kontratu guztien %10 eskuratu zituztela eta Koreakoek, berriz, %40 lortu zituzten.

Europako Batzordeak proposatu dituen laguntzak Korearen bidegabeko lehiaren kalteak zuzenean sufritu dituzten ontziolentzat izango dira. Zehazki, itsasontzi handiak egiten dituzten ontziolei zuzenduko dira, zama ontziak eta petrolio zein gai kimikoak garraiatzeko tanga ontziak egiten dituztenei, hain zuzen. Okerrago dauden ontziolak beren egoera hobetzea espero du Bruselak.

Kontratuetako balioaren %14koa izango da gehienezko laguntza. Baina Batzordeak «erabakiak Europako Batasuneko lehian kalterik ez duela egin behar» argi utzi zuen.

Horrexegatik, tentuz ibiliko da %6tik gorako laguntzekin: herrialde bakoitzak laguntzen berri eman beharko dio Batzordeari eta honen oniritzia beharrezkoa izango da. Lehian izan daitezken beste herrialde guztiek erabakien berri izango dute, eta beren iritzia ere Batzordeari zuzenean azaltzeko eskubidea izango dute.

PETROLIOA

LPEE erakundeak milioi bat upel gutxiago ekoiztuko du egunean

Agentziak | VIENA

Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak (LPEE) milioi bat upel gutxiago produkzituko duela eguneko erabaki zuen atzo, abuztuaren 6 eta 7an egitekoa duen ezohiko bileraren aurretik. Erakundeko presidente eta Aljeriako Energia ministro den Chakib Khelilek eman zuen atzo erabakiaren berri. «Munduko hazkunde ekonomiko ahularen eragina eta erreserba handien ondoriozko petrolio eskari txikiaren eragina kontuan izanik hartu du LPEEk erabaki hau». Ekoizle eta kontsumitzaileen mesederako prezioen aldakortasuna saihestu nahi dutela esan zuen LPEEko presidenteak. Khelilek, gainera, «merkatuek hala eskatuz gero», ezohiko bilera batean are gehiago murriz dezaketela produkzioa iradoki zuen.

Prezioak mantentzea helburu

Azken egunotan ugari ziren LPEEk horrelako erabaki bat hartuko zuela azaltzen zuten zurrumurruak. Urte hasieratik jada, eguneko 2,5 milioi upeletan murriztu dute LPEEko herrialdeek euren produkzioa, xede nagusia merkatuen egonkortasuna bermatzea dela esanez. Kartelak upelaren prezioa 22-28 dolarren bitartean mantendu nahi izaten du. Maiatzetik hona, petrolioaren prezioak nazioarteko merkatuetan beheranzko joera izan du 29 dolarren ingurutik ia 24 dolarretaraino, nahiz eta Irakek aste batzuetan, NBEren politika salatzeko bere esportazioak eten.

Eskaintzaren balizko murrizketa horren ondorioz, atzo bertan petrolio upelaren prezioak zertxobait gora egin zuen Londresko merkatuan eta Brent upela, Europan erreferentziatzat erabiltzen dena, 0,27 dolar garestitu zen, 25,27 dolarretaraino.

Produkzioaren murriztea irailaren lehenetik jarriko da indarrean.